

Ñaco Goñi: «Taldearen doinuaren isla da diskoa»

■ *Gaztelupeko Hotsak-ekin argitaratu du lana*

Montse Arregi / Bilbo

ÑACO GOÑI eta Bluescavidas taldearen zuzeneko blues doinuak bere horretan jasotzen dituen diskoa kaleratu berri du Gaztelupeko Hotsak zigiluak. Musikiariak atzo Bilbon ziurtatu zuenez, «taldearen doinuaren isla da diskoa, ez dauka inolako nahasketa edo recordingik».

Madrilgo Moby Dick aretoan eskainitako zuzeneko kontzertuan grabatutako diskoa da, eta gonbidatuen artean daude Joseba Tapia trikitixarekin, Tonky de la Peña ahots eta gitarrarekin, eta Antonio Serrano aho-soinuarekin.

Goñirentzako bosgarren diskoa da aurkeztu berri dena, Gaztelupeko Hotsak-ekin kaleratu duen bigarrena. «Ñacorekin abiatu ginen», gogorarazi zuen atzo disketxeko Zarrak.

Ñaco y los Bluescavidas diskoan kanta berriak, lehengoak eta hainbat bertso bildu dituzte. «Blues boskote baten doinua era-kusten du, martxadun diskoa da, eta ez inondik inora atzerabegirakoa».

Zuzeneko kontzertuaren

grabazioa izanik, diskoa «behetik gora» doala deritzo musikariak, «aurrera egin ahala berotuz, emanaldia bera bezalaxe». Zazpi musikarien arteko *jam session*arekin amaitzen da diskoa.

Zuzeneko musikaria

Bere burua zuzeneko musikaritzat du Goñik. Blues musikaria ez dela aberastan ziurtatu zuen.

Inguruan blues talde gehiegirik ez dagoela onartu zuen atzo Ñaco Goñik. Hala ere, «beti» egon dela baten bat gogoratu zen. «Bluesa gustagarria da, gutxiengo batentzat bada ere, eta azken aldian belaunaldi berriak daude zaletuen artean», azaldu zuen.

Duela bizpahiru urte kaleratu zuen Goñik azken diskoa. Malcom Scarparekin bikote emankorra sortu zuen hasieran. Gero, hainbat taldetan aritu da, Tonky Blues Band, Mermelada edota Jockers delakoekin.

Euskal Herrian zaletu fidelak ditu Goñik, «hainbat urte ibili baikara gaztetxez gaztetxe. Ereiten duenak jasotzen du». Horrela adierazi zuen berak.



Ñaco Goñi musikaria, atzo, Bilbon.

XOUSE SIMAL

Udako festak aztertu eta bildu ditu Juan Garmendia etnologoak

Gipuzkoan oinarriturik osatu du Bertan bildumako 14. alea

Gorka Erostarbe / Donostia

Juan Garmendia Larrañaga etnologoak udako solstizioaren inguruan aintzina ohiko ziren erritoak, egun izen handiko diren udako festen sorrera, ezaugarriak eta

abar bildu ditu liburu batean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bertan bildumako 14. alea osatu du horrenbestez. Gipuzkoako hamaika festa du oinarrian liburuak, eta Javier Juanes argazkilariaren irudi erakargarriak ilustraturik dator.



EDURNE KOCH

Juan Garmendia, Maria Jesus Aranburu eta Javier Juanes, atzo, Donostian.

NEGUKO FESTAK jasotzen dituen liburu batek eman zion hasiera 1994. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarri zuen Bertan izeneko bildumari. Juan Garmendia etnologo eta historialari gipuzkoarrak (Tolosa, 1926) idatzi eta Javier Juanes argazkilariaren irudiek osatu zuten lan hura. Sei urte geroago —tartearen beste 12 ale plazaratu dira— bi egile horiek berberak gauzatu dute udako festak aztergai nahiz ikusgai dituen lan berria ere, *Udako festak* izeneko hain zuzen ere.

Maria Jesus Aranburuk aurkeztu zuten liburua atzo goizez, Donostian. Aranburuk, «modu atsegin batean egingo dako liburua» dela nabarmendu zuen: «Ez da modu teoriko-zientifikoan eginga. Aitzitik, gure patrimonio historiko-paisajistikoaren berri ematen duen liburu dibulgatiboa da. Lan sakona, edozein modutan ere».

Udako festak-en egile Juan Garmendia, liburuaren izaeraz mintzatu zen, edukiari

buruz modu sakon eta zehatzetan solas egin aurretik: «Ez da festen gida-liburu bat. Ikuspuntu antropologikotik edota kondairatetik abiatuta egin dut lana», azpimarratu zuen.

Hamaika herri, hamaika festa

Gipuzkoako hainbat herritako hamaika festen berri ematen du liburuan Garmendia: «*Udako festak* du izenburutzat lanak, baina, egia esan, uda hasi baino lehenagoko eta geroagoko jaiak ere bildu ditut». Orea eta Legazpiko Santakrutz jaiak, Oiarzungo olagizonen dantza, Bedaioko Harri Jaia, Aldabako San Antonio jaia, *Corpus Christia*, erraldoiak, buruhandiak, txistulariak, dantzak, udako solstizioko erritoak, alardeak, eta zezen festak jasotzen ditu besteak beste liburu berriak.

Javier Juanes argazkilariak 10 urtetik gora daramatza Gipuzkoako herrietako festetako irudiak ateratzen eta hiru jai mota bereizten dituela azaldu zuen: «Hiru festa mota daude: handiak, arruntak eta bertakoek soilik ospatzen dituztenak. Azkenok dira interesgarrienak».

JUAN GARMENDIA

Lanaren izaera

■ ■ ■ «*Ez da festa gida bat. Ikuspuntu antropologikotik begiratuta egin dut lana*»

JAVIER JUANES

Festa motak

■ ■ ■ «*Hiru festa mota daude: handiak, arruntak eta bertakoek soilik ospatzen dituztenak*»

Lau hizkuntzatan argitaratua

Lehen lan hura euskara hutsean plazaratu zuten estreinako aldian. Geroztik berrargitarapen bat egin dute ordea, zeinak lau hizkuntza biltzen dituen: euskara, gaztelera, frantsesa eta ingelesa. Halatsu egin dute, argitaratu berri den liburuarekin ere, nahiz eta garrantzi handiena euskarazko testuari eman nahi izan dioten, horiek argazkien bidez ilustratuz batez ere.

Liburuaren egilea bera, argazkien egilea, eta Gipuzkoako Kultura zuzendari



Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala



**ANTZERKIA
EUSKARAZ**

Apirilak 13; 20:30

Nafarroako Antzerki Eskolan (S. Agustín kalea)

KAJOI ESZENA

"Olimpo"

NAFARROAKO ANTZERKI ESKOLAREKIN BATERA